

FAKULTATEKO BATZORDE IRAUNKORRAK ONLINE EGINDAKO BILERAREN AKTA **(2021eko abenduaren 17)**

Berlaratutakoak eta berlaratu ez direnak (Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 22.2 art.)

Dekanotza Taldea

1. Del Valle Loroño, Ana irene – **Dekanoa**
2. Arlucea Ruiz, Esteban - Idazkaria

Administrazio burua

3. Asensio Espina, Kizitiñe

Irahaste-ihertzaile iraukorrak

4. Davila Legeren, Andrés
5. Meso Ayerdi, Koldo
6. Zalbidea Bengoa, M^a Begoña
7. Otero Gutiérrez, Beatriz
8. García Ureta, Irene (*ez da etorri*)

Gainerako IRIak

9. Zabalondo Loidi, Beatriz

AZP

10. Arandia Urtiaga, Igone

Ikasleak

2021eko abenduaren 17an, ostirala, 11:30ean, telematikoki bildu da UPV/EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Batzorde Iraunkorra, bigarren deialdian eta ohiko bilkuran eskatutako quoruma egiaztatu ondoren, dekanoa buru delarik eta bazterrean aipatutako pertsonak berlaratu direla, hona aztergaien zerrenda:

1. Aurreko akta irakurri eta onartu.

Aho batez onartu da 2021eko uztailaren 8an Batzorde Iraunkorrek egindako bileraren akta.

2. Dekanoaren txostena

Dekanoak txosten labur baten berri eman egin du, denbora gutxi igaro baita batzarrak egindako aurreko bileratik. Gogorazi du Klaustroko eta Fakultateko Batzarreko ikasleen ordezkariak aukeratzeko hauteskundeak abenduaren 13an egin zirela. Parte hartzea kolektiboaren %9 ingurukoa izan zen. Ikastegiarentzat hiru klaustrokide hautatu behar ziren, eta parte hartu zuen hautagai zerrenda bakoitzeko bat eman zen. Fakultateko Batzarrari dagokionez, bederatzi postuak honela banatu ziren: lau Estudiantes de la Facultad hautagaitzarako, hiru UIBrako eta bi ikasleok Martxan-erako.

Dekanoak adierazi du hauteskunde egunean bi gorabehera izan zirela: Zientzia eta Teknologia Fakultateko ikasle bat Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatera etorri zen botoa ematera. Bietan zientzia denez, biak nahastu zituen, antza; bigarrenik, UIB hautagaitzaren hauteskunde propaganda banatu zenez, horren berri eman zitzaion Hauteskunde Batzorde Zentralari.

Azkenik, batzordeari jakinarazi dio fakultateko eslogan onenaren saria eman zela atzo, ikastegiaren 40. urteurrenaren barruan, egiten ari diren ekitaldi ugariekin jarraituta.

3.- Azterketa egunaren aldaketa

Azterketak 2022ko uztailaren 11n izango dira, eta ez uztailaren 4an.

4. Irakasleen plazak

Historia Garaikidea sailaren bi 11. eranskinen alde agertu da, ikastegiaren atxikipena aldatzeko honako lanpostu hauek: PAC8L2-D00021-6 eta TUC8/1-D00021-33.

5.- Galde-eskeak

Otero irakasleak aipatu du arratsaldean ez dagoela multimediako teknikaririk Dekanoak eta administrazioburuak erantzun dute 20:00ak arte arratsaldeko txanda badela, eta aipatutako gabezia egoera bereziren batek eraginda izango dela.

Azkenik, dekanok eskerrak eman dizkio Begoña Zalbidea irakasleari eskainitako zerbitzu guztiengatik.

Zabalondo irakasleak ez du ekitaldia amaitu nahi izan Zalbidea lankideari besarkada birtual bat bidali gabe. Zabalbidea lankideak besarkada hori jaso eta gogorarazi du harro eta pozik lan egin duen ikastegiko lankideekin.

Eta bestelako aztergairik izan ez denez, dekanok amaitutzat eman du batzordearen bilera 12:00etan, eta, nik, idazkaria naizenez, horren fede ematen dut, Leioan, 2021eko abenduaren 17an.

Dekanoaren iritzia
Ana Irene del Valle

Idazkari akademikoa
Esteban Arlucea